



ELA

EUSKAL SINDIKATUA

¡NO MÁS RECORTES SOCIALES! GIZARTE MURRIZKETARIK EZ!

PRESTAZIO SOZIALAK ETA IRUZURRA NOR ARI DA GEZURRETAN?

Euskal Autonomia Erkidegoko prestazio sozialen egungo eredia, oso eskasa izanik, azken hamarkadetan garatutako dinamika mobilizatzailea eta errebindikatzailearen emaitza da. Inork ez digu ezer oparitu.

ZEINTZU DIRA EAE-KO EGUNGO PRESTAZIO SOZIALAK?

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)- Bizikidetz-unitate (familia) guztiek gutxieneko diru-sarrera bermatu batzuk izateko eskubidea dute. Bakarrik bizi den pertsona batek hilean 616 euroko diru-sarrera bermatua luke, 12 ordainetan (hileko 791 euro bi pertsonako unitateentzat eta 895 euro 3 pertsona edo hortik gora izanez gero). Norbere diru-sarrerak zenbateko horretara iristen ez badira, DBEak osatu egiten ditu. Berariazko osagarriak daude pentsiodun familientzat eta laneko diru-sarrerak dituztenentzat.

Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO)- Alokairu-gastuetarako laguntza bat da, gehienez ere hileko 250 eurokoa. Honek baldintza bereziak ezartzen ditu, eta betiere DBE motaren bat jaso behar da.

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL)- Aldizkakoak ez diren prestazioak, gastu bereziei aurre egiteko, ohiko zein ohiz kanpokoak direla ere (alokai-

rua, argia, ura, komunitateko konponketa, etab.). GLL ez dira eskubide bat. Egun zazpi hilabetetan agortzen dira, beharrianei erantzuteko gaitasunik gabe.

ZEIN IZAN DA LAGUNTZA HAUEN BILAKAERA URTE HAUETAN?

Azken urteetan bera jasotzen duten familien kopurua asko gehitu da pairatzen ari garen langabezia, prekarietate eta pobreziaren hazkundearen ondorioz. Aurtengo urrian 65.568 bizikidetz-unitatek jaso dute DBEa., 2009ko bukaeran baino % 36,5 gehiago.

Eusko Jaurlaritzak 2015rako hiru laguntzetarako (DBE, GLL eta EGPO) 482 milioi euroko aurrekontua izango duela iragarri du. Gobernu horrek berak AHTaren Gipuzkoako tarterako 378,3 milioi euro aurreikusi du datorren urterako.

Jaurlaritzak egin duen 2014ko Beharrian Sozialen Inkestak adierazten du azken urteetan EAEn pobrezia asko ari dela hedatzen eta pobrezia pairatzeko arriskutan eta prestazio sistemaren baitan ez dauden herritarrak gero eta gehiago direla.

GEROZ ETA ERRAZAGOA DA PRESTAZIO SOZIALAK ESKURATZEA?

Ez, azken urteotan neurri murriztaile ugari hartu da:

1. Prestazioen zenbatekoa gutxitzea

Patxi Lopezen gobernuak prestazio ekonomiko guztien zenbatekoa murriztu zuen. Zehazki, prestazioak %7 beheititu zituen. Zenbatekoaren murrizte hau aurrekontuetako xedapen baten bitartez egin zen, eta urtero berritu zuten. Urkulluren gobernuak ere urtero aurrekontuetan aplikatzen du jaitziera hori. Ondorioz, DBEaren legea aplikatuta esaterako bakarrik bizi den pertsona batek 671 euroko gutxieneko diru-sarrera jaso beharko luke, baina benetan zenbateko hori arestian aipatutako 616 eurotan finkatuta dago.





2.- Prestazioak jasotzeko eskakizun zorrotzagoak eta beste murrizketa batzuk

Prestazio sozialak arautzen dituen legearen erreformak, zeina 2010ean onartu baitzen, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ahal izateko eskakizunak zeharo zorrotzu zituen (adibidez, beharrezko erroldatze epealdia luzatu zen, urtebetetik 3 urtera) eta zenbatekoa murriztu egin zuen (esaterako mugatu egin baitzuen Laneko Diru-Sarrera Osagarrien Errenta jasotzeko epea).

3.- Lanbideren irizpide murriztaileak

Urtean behin edo bitan Lanbidek Legearen interpretazio irizpide berriak ezartzen ditu, erabat subjektiboak eta eztabaidagarriak, prestazioaren eskubidea murriztuz eta berau eteteko suposizioak ezarriz.

PRESTAZIO SOZIALETAN IRUZURRIK DAGO?

Ez dago inongo daturik prestazio sozialetako iruzurra handia denik ondorioztatzeko. Alderantziz. Eta deigarria egiten da iruzur fiskala baimendu edo ustelkeriaz kutsatutako alderdi politikoetakoak direnak elkar lotzea prestazio sozialak eta iruzurra. Dena dela, ezberdinak dira iruzurraren aurka egitea batetik, eta eskubideak murriztea, bestetik.

ZEIN ONDORIO DITU PRESTAZIOEN AURKAKO KANPAÑA HONEK?

PP alderdiak errudun eta kriminaltzat hartzen du kolektibo oso bat, hain zuzen gizarteko beharrizan handienak dituen pertsonena. Zitala eta bihozgabea da; boza gutxi batzuen truke, edozer gauzarako gai dira. Oso eskuzabalak dira banka eta aginte ekonomikoarekin eta oso gogorak jende pobreenarekin.

Lotsagabe ari dira gezurretan, kolektibo ezberdinak elkar mutur joka jarriaz. Jarrera arrazistaz zabaltzen ari dira xenofobiarako bideak erraztuz. Deitoragarria eta salagarria ere bada.

KANPAÑA HONEN AURREAN ZER EGITEN DU EUSKO JAURLARITZAK?

Eusko Jaurlaritzak murrizte politikarekin jarraitzen du. Apurka-apurka sistema eraisten ari da. Eta PP baino min handiagoa egin dezakete, adibidez, okerreko kobratzeagatik 66.000 karta bidaliko dutela esatean. Honelako mezuek iruzur orokortuaren itxura ematen dute, nahiz eta beraiek onartu ez dela horrela.

Gainera, Urkullu Lehendakaria bera sistemaren iraunkortasunerako itun sozialaren beharraz aritzen da, alegia, murrizketa gehiago.

ZEINTZUK DIRA ELAREN PROPOSAMENAK?

- **EAEko prestazio ekonomikoaren estaldura asko hobetu beharra dago, zenbatekoari eta baztertutako kolektiboak aintzat hartzeari dagokionez.**
- **DBEren zenbatekoa ezin da pobrezia-ataletatik behera egon.**
- **Lehen urratsa, berehala egin beharrena, azken urteetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea da (zenbatekoa, jasotzeko eskakizun legalak, Lanbideren irizpide zorrotzagoak, etab.).**
- **Gizarte-Larrialdiko Laguntzak eskubide subjektibo gisa hartu behar dira, benetako beharrizanak asetu ahal daitezten.**
- **Lanbiden jende gehiago behar da prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenei behar bezalako arreta eman ahal izateko, eta orientazio zein bitartekaritza laboraleko politikak modu pertsonalizatuan gara daitezzen.**